

1) A, A, A, ARDO GORRI NAPARRA

A, a, a, ardo gorri naparra
elikadura ona da
edan ahal baldin bada:
a, a, a, ardo gorri naparra

E, e, e, ni ardoaren alde
edan ardura gabe
baldin bada debalde:
e, e, e, ni ardoaren alde

I, i, i, ardoak gaitu bizi
noizik behin ongi busti
edan gabe ez utzi:
i, i, i, ardoak gaitu bizi

O, o, o, hau biontzako dago
edan dezagun oro
zuk orain ta nik gero
o, o, o, hau biontzako dago.

U, u, u, ardoak galdu gaitu
gehiegi edan dugu
lurra irago digu:
u, u, u, ardoak galdu gaitu.

2) AITA-SEMEAK

Aita-semeak tabernan daude
ama-alabak jokoan (berriz).

Berriz ikusi beharko dugu
behi gizona auzoan,
berriz ere ez da faltako
trapu zaharrik kakoan.

Geurea dugu erru guztia
geurea dugu osoan,
ez inori ba errua bota
Euskal Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat
etorkizuna eskuan,
ez zaigu hilgo Euskal Herria
ni bizi naizen artean.

3) AITORREN HIZKUNTZ(A) ZAHARRA

Aitorren hizkuntz(a) zaharra
nahi degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu,
baldin gure zainetan
odolik badegu
euskaldunak euskeraz
hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra
euskeraguria
inun ez det aurkitzen
beste bat hobia
usai goxodun hizkuntz
txukun ta argia

biraorikan ez duen
hizketa garbia.

Gora_euskera maitia
zoragarriena
euskaldunen artian
maitagarriena.
Munduan sortu zanik
hizkuntzik zaharrana
gora ta gora_euskaldunak
eta gure_euskera.

4) AI ANTON

ANTTON: Anttoni, Anttoni!
Zure atian nago ni!

ANTTONI: Ai, Antton; Ai, Antton!
Ate onduan hor konpon!

ANTTON:

1. Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra:
zerua goibel, kabia hotza
ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nere bihotzak duan
zure hotzaren bildurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

Anttoni, Anttoni...

ANTTONI:

2. Enarak ez du behin egindako
kabrik inoiz aldatzen;
urtero, beti, kabi haretan
umeak ditu bazkatzen.
Baina, zu Antton, enara txarra
zaitut neretzat bilatzen:
jai bakoitzian nexka berria
ikusten zaitut maitatzen

Anttoni, Anttoni...

ANTTON:

3. Enarak ere bere kabia
galduta badu ikusten
biderik gabe, haruntz ta honuntz
kabitik du aldegiten.
Egarri dagon nere bihotzai
zuk eman ezik edaten
berriro ere ibiliko da
gogorik gabe nunbaiten.

Anttoni, Anttoni...

5) ALDAPEKO

Aldapeko sagarraren
adarraren puntan
puntaren puntan
txoria zegoen kantari
txiru liru li
txiru liru li
nork dantzatuko ote du
soinutxo hori.

6) ALTZATEKO JAUN

Altzateko jaun, hor zaude nunbait
zure lurrera itzultzeko zai.

Gure_izatearen testigu zuzena
makurtu gabeko zuhaitz lerdena;
desertuko haizeak
legortu ez zuen lorea,
itxasoaren kolorea;
hor zaude zu.

Hamasei Salbe ta_hamalau Kredo
erderaz entzunagatik,
bazenekizun hori ez zela
sekulan guretzat egin.

Urrezko dukat eta dirua
ez dira engainu txarrak
bazter batera apartatzeko
lehengo sinismen zaharrak.

Merkatarien aldamenera,
amildegian goitik behera
oharkabean eroriko gera.
Baina guztiok jakin dezagun
bidea nundik dihoan:
Altzateko jaun,
hor zaude zu!

Bide batetik okertu gabe
esan dezagun bertsua

ixil-ixilik kanta dezagun
euskaldunen sekretua:
Herri zahar baten oharpen haiek
nola ditugun galduak
zenbat itxura alda lezazkeen
eguna hil zuen gauak.

Bidasoaren ezker-eskubi
udaberrian lore gorriak
ixilikako ur izkutua;
mendetan zehar kantu leguna,
noizbait latinez lurperatua
laister berpiztu behar duguna.

Hamasei Salbe...

Larun gainean sorginen dantzak
naba(r)itzen ditut arratsaldean;
lurrak badaki kontu ho(r)ien berri;
eta hor dago, ixil-ixilik.
Altzateko jaun...

7) ALFERRAREN ASTEA

1. Astelehena
jai ondoren alferra
ezer ez egiteko
ez goaz lanera.

2. Asteartea
euria goitik behera
busti egingo gera,
ez goaz lanera.

3. Asteazkena
osaba ezkontzen da
ta jai hartzen badu,
ez goaz lanera.

4. Osteguna
amonaren eguna,
festa hau ospatzeko
ez goaz lanera.

5. Ostirala
haginetako mina
aspirina hartuta
bagoaz ohera.

6. Larunbata
egun erdiko lana
egun erdiagatik
ez goaz lanera.

7. Igandea
lantegia itxita
lana egin nahi baina
ezin joan lanera.

8) AMAK EZKONDU NINDUEN

Amak ezkondu ninduen hamabost urtekin.
Senarrak bazituen larogei berakin,
eta ni, neskatila gaztia, agure zaharrakin.

Ama, zertarako dut nik agure zahar hori?
Hartu ta leihotikan jaurti behar dut nik
ai, ene! ene leihotikan jaurti behar dut nik.

“Neska, hago ixilikan aberatsa dun hori
pazientziz pasa hitzan urte bat edo bi,
hori hilez geroztikan biziko haiz ongi”.

Deabruak daramala interesatua.
hau baino nahiago dut adin berekua
ai, ene! hogeit bat urteko gazte loratua.

9)AMERIKETARA JOAN NINTZAN

Ameriketara joan nintzan
xentimorik gabe
handik etorri nintzan, maitia,
bost milioien jabe.
Txin, txin, txin, txin,
diruaren hotsa
haretzek ematen dit, maitia,
bihotzian poza.

10) ARDUA EDANDA

Ardua edanda mozkortzen naiz
pipa erreta txoratzen naiz
kortejatzen lotsatzen naiz...
nola demontre biziko naiz?

11) ATHARRATZEKO GAZTELUA

Ozaze Jaurgañian bi zitroin doratü.
Atharratzeko jaunak bata dü galdatü.
Ükhen dü arrapostü, eztirela huntü,
hüntürik direnian batto ükhenen dü.

Portaliata jüan zite, ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atharratzeko jauna;
otoi, erran izozü ni eri nizala,
zazpi egün hoietan ohian nizala.

Ama, saldu naüzü biga bat bezala,
bai eta desterratü, Oi! Españiala.
Aita bizi ükhen banü, ama, zü bezala,
enündüzün ezküntüren Atharratzeko salala.

12) AXURI BELTZA

Axuri beltza ona duk baina
txuria berriz hobea
dantzan ikasi nahi duen horrek
nere oinetara begira.

Festan dabilta salto ta brinko
pozez ertenik plazara
guk ere parte hartu nahi degu
eta bagoaz dantzara.

Aupa mutilak, aupá neskatzak,
baztertu barruko lotsa
alaitasunez poztu ditzagun
gorputza eta bihotza.

13) BALEAREN BERTSOAK

1. Milla beatzireun da
lenengo urtian
Maiatzaren amalau
garren egunian
Orioko erriko
barraren aurrian
balia agertu zan
beatzik aldian.

2. Aundia bazan ere
azkar ibillian
Bueltaka an zebillen
juan da_etorrian
Ondarra arrotuaz
murgil igerian
Zorriak zeuzkan eta
aiek bota naian.

3. Ikusi zutenian
ala zebillela
beriala jun ziran
treñeruen billa,
arpoi ta dinamitak
eta soka billa.
Aguro ekartzeko
etzan jende illa.

4. Gertatua jarri det
egiaren alde.

Au orrela ez bada
jendiari galde.

Biotzez pozturikan
atsegintsu gaude.
Gora oriotarrak
esan bildur gabe.

14) BEGIAK PARREZ-PARREZ

Begiak parrez-parrez
bihotza negarrez (berriz)
halaxe juaten nintzan maitia,
zugandik dolorez, ai, ai, ai (berriz)

Ama zuriak neri
parian pasata (berriz)
ez dit agurrik e(g)iten maitia
burua jirata, ai, ai, ai (berriz)

Ai, zure amak neri
ez agur e(g)iteko (berriz)
ze palazio dauka, maitia,
zuri emateko, ai, ai, ai (berriz)

Palazio eder bat
haitzaren gainian (berriz)
ez da haizerik sartzen, maitia,
ez dabilenian, ai, ai, ai,
ez da euririk sartzen, maitia,
ari ez dunian.

15) BIZKAIKO ABERATSAK

Bizkaiko aberatsak
dira diruzale
txerri-erosle eta
txorizo-saltzaile.
Dendaz bete dituzte
Bilbon zazpi kale,
inoiz ez dute eman
pausorik debalde,
burrukatzen baitute
diruaren alde.

Somera, Artekale,
gero Tenderia
han ikusi gendun
mila komeria.
Tenderoaren grinak
nork erremedia!
Gizonaren gainean
han erori dia,
hanka kendu diote
Ai! Zer aberia.

Euskal baserritarrak
dadukan pobrezia
baina haundiagoa
askoren grandeza.
Madrildik etorri den
Korte Ingelesa
bertan sartuko balitz

euskaldun baldresa,
dirua gastatzeko
manera erreza.

Ez zaitez bertan sartu
euskaldun maitea
zabalik badaukazu
bertako atea,
galduko duzu eta
bigarren hankea
bai eta bide batez
zure hankartea.
Euskaldun batentzako
zer errematea!

16) BIZKAIA MAITE

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua
lirain, sendo, eder
nere gogoaren ertzatik pasatzen.
Zure usain goxoa,
lana, amodioa, itsasoa,
nere baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta oihartzunaren haunditasunean murgilduz
joan nintzen jauzika, hegaka.

Bart arratsean
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan lotu zinen
alai, piper eta gatza
sabel emankorra.

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia
burua orlegi, bihotzean sua
olerkari penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta,

zure berba lehun
zure gatzaren bizia
zure burdinaren goría
dira gaur neretzat aterbe.

17) BOGA, BOGA

Boga, boga, marinela
joan behar degu urrutira
bai, Indietara (berriz)
Ez det nik ikusiko
zure kaia ederra
Agur, Ondarruako
itsaso bazterra.

18) DEBAKO HERRIARI

Itxas ertzeko herrixka baten
 bizi naiz aspaldi hontan,
 Kantabriako txoko goxo bat
 errio baten besotan.
 Goitikan behera begiratuta
 pentsatutzen dut askotan,
 politagorik ote dagoan
 txikia izatekotan.

Itxas ertzeko herri politez
 aukeramena daukazu,
 eta nora joan ez dakizula
 igoyal egongo zera zu.
 Dudarik ere ez zazu egin
 umerik baldin baduzu:
 lasai igaro ta jolasteko
 Deba aukeratu zazu.

Andra Mari ta San Roke dira
 herriko festa egunak,
 aspalditikan geure zaindari
 aukeratu ditugunak.
 Dantzatu eta umore ona
 dibertitzeko nahi dunak,
 non jostatu aurkituko du
 etortzen den euskaldunak.

Aurpegi txuri polit batean
zimur bat ez da atsegin,
eta akats bat agertutzean
ezin nezake hutsegin.

O, debatarrok, euskeraz denok
pixkat gehiago hitzegin,
hain kaiol eder maitea zero
antzekoa izan dedin!

19) DEBARI ABESTIA

Debako erri maite,
nere sor-lekua
urruti nabilkizu
zugatik mindua
Etzait beñere aztu
zure ingurua,
biotzean bai-zaitut
barrura sartua.

Itxasoak ertzean
egin zizun leku:
amak aurra bezela,
or laztantzen zaitu:
zu lotaratzeko du
olatuen kantu:
urak txirla_ain politik
eztu_ĩñoiz bazartu.

Mendi oñean zauden
seaska txuria
arrizko mirari da
zure_Eliz-Nausia.
Ondartza gorriaren
aize zumardia:
kabi bat dirudizu
zerutik jausia.

20) DONOSTIYAKO IRU DAMATXO

Donostiyako iru damatxo
Errenteriyen dendari.
Josten ere badakite baña
ardoa eraten obeki.
Eta krixkitin, kraxkitin,
arrosa krabelin,
ardoa eraten obeki.

Donostiyako Gaztelupeko
sagardoaren gozua.
antxen eraten ari nintzala
autsi zitzaidan basua.
Eta krixkitin, kraxkitin
arrosa krabelin,
basoa kristalezkua.

Donostiyako iru damatxo
irurak gona gorriyak,
sartzen dirade tabernan eta
irtetzen dira ordiyak
Eta krixkitin, kraxkitin...

Donostiyako iru damatxok
egin omen dute_apustu,
zeñek ardo geyago eran ta,
zein gutxiago mozkortu.
Eta krixkitin, kraxkitin...

21) EPERRAK

Eperrak baditüzü bere bi hegalak
bai eta bürün gainin kokarda eijerra,
zuk ere baldin bazünün
gaztetasün eijer bat,
neskatilen gogatzeko bilho hori pollit bat.

Amorosak behar luke izan lotsagabe,
gaiaz ebiltia ez ükhen erhave,
egunaz ebiltia desohore leike
xoriak ere oro haier so dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti,
eia! atzemanen nianez lili eijer hori,
azkenian atzeman düt oi bena tristeki,
lümarik eijerrena beitzaió erori.

22) ERROTA ZAHAR MAITEA

Errota zahar maitea
 uraren ertzean,
 uraren ertzean ta
 basati beltzean.
 Negar egiten duzu
 aleak xehezean;
 ni ere triste nabil
 zutaz oroitzean (berriz)

Zotin sekua dagi
 errota-harriak,
 itzalitako izar-dirdirak
 dira niretzat
 zure begiak.

Izar eder bat dago
 hor goiko lekuan;
 errota zaharra berriz
 erreka zokuan.
 Berebiziko pena
 badaukat barruan
 ezin gintezke bizi
 elkarren onduan (berriz)

Bizitzaren legea
nahi dut onartu;
 halabeharra, kuraiaz hartu.
 Berez doana
 zertan behartu?

23) EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz.

Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskaraz
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara.

Geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herria_eskaldunak
irabazteko eguna,
pazientzia ere aurretik
behar duguna.

Ez al dakizu euskara dela
eskaldun egiten gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena?
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

24) FURRA FURRA

Furra, furra fandangua
hortxe duzu fandangua
geure gustokua

Gaur goizian jeiki naiz
suerte onian
tanke bat topatu dut
neure kafesnian
Ez dakit zer daukagun
bakea ala gerra
baina, nik bada_ezpada
egin dut puzkerra.

25) GIZON ARRUNTAREN KOPLAK

Kantatzera noazu
bertso bat edo bi
herenegun jarriyak
gizon arruntari,
Antoniyo, Lorentzo
eta Joxemari,
gauza ederra denik
ez ukatu neri (berriz).

Goizian jeikitzen
lehenbiziko gauza
aba zabaldu eta
jazten ditut galtzak
muturra garbitzen
nolako zalantzak
ezin kendurik nabil
luaren orratzak (berriz).

Kafesnia hartuta
horrekin batera
ahal baldin badet behintzat
noa komunera
aurrian papera ta
atzian papera
periodikua letuz
ilustratzen gera (berriz).

Etxetikan lanera
noa nahiko mantso

Realak kuartro-uno
galdu zuen atzo
kalian bi zakur ta
beste hiru atso
egunon Don Pepito
eta Don Alfontso

26) GOIZIAN ARGI HASTIAN

Goizian argi hastian,
ene leiho hegian
xori bat pausatzen da eta
goratik hasten kantan
Xori eijerra, hain alegera,
entzüten aidanian
ene bihotzeko trixtüra,
laister duak aidian.

Ene xoririk maitena,
zertan jin hiz nigana
Iratzarrazi nialarik
ametsik eijerrena.
Jinik hain goizik, uste hiena
baniala hanitx pena?
Ez, ez, habil kontsolatzera
malerusago dena.

27) GORA TA GORA!

Gora ta gora beti
bai gora Lapurdi
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitála
eta Lapurdi beti dago apála,
aldrebesturik dago mundu zitala
konformatzen ez bagera
ze pekatu mortála!

Gurea ez da bizimodu normala,
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen errealá
Benetan da miserable
euskaldunon jornála.

28) GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGATIK EZ?

Guk euskaraz,
Zuk zergatik ez?

Euskara putzu
sakon eta_ilun bat zen
Eta zuek denok
ur gazi bat atera zenuten
handik nekez.

Orain zuen birtute
zuen indarrez
Euskara_itsaso_urdin
eta zabal bat izanen da.
Eta guria da.

29) HABANERA

Berriro itzuliko balitz
 iragan denbora arrotza
 berdin kontsumi nezake
 vainilla gozo artean,
 itsaso urrun batetan
 irudimena galdurik
 udaberriko euritan
 larrosak bizten ikusiz...
 Osaba komertzianterik
 ez nuen izan Habanan,
 pianorik ez zegoen
 bizi nintzen etxe hartan,
 neskaxen puntilla finak
 udako arratsaldetan,
 errosario santua
 neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute
 ezpain bustien gustoa
 desiozko hotzikaran
 etsipenaren tamalez,
 gauak zelatan dakusa
 kontzientzia bilutsik
 badoaz ordu geldiak
 gogorapenen hegalez.
 Jaio ginen, bizi gera,
 ez dugu ezer eskatzen,
 itsasontzia astiro
 kaiatik ari da urruntzen,

Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
sukartutako_ametsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan,
Abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musika aide nagiek
odola erretzen zuten.
Jaio ginen, bizi gera...

30) ILUNABARRA

Ilunabarra!

Eguzkia hasten da, jetxitzen jetxitzen
dizdizera ederra zaiola gutxitzen.

Diamantezko printzak zaizkonian
galtzen

urrezko bola baten itxuran da jartzen
eta geldi-geldi da itsasera sartzen.

31) ITSASOA LANHO DAGO

Itsasoa lanho dago
Baionako barraraino
Nik zu zaitut maiteago
txoriak bere umeak baino (berriz).

Aita gutaz orhoit dago
lanhopean gaueraino
Nik zu zaitut maiteago
arrantxoek ura baino (berriz).

32) ITSAS ONTZI BATEN

Itsasontzi baten
Euskal Herritik kanpora
naramate eta
ez dakit nora

Agur nere ama laztan goxoari
Agur nere maite politari
Ez egin negar, etorriko naiz
egunen baten pozez kantari.

Agur senideak, agur lagunari
Agur Euskal Herri osoari
Ez egin negar, etorriko naiz
egunen baten pozez kantari.

Gora Euskal Herri, Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari.

33) IZAZU NITZAZ KUPIRA

Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat,
ari ainbeste nai diyotanik
ez da munduan beste bat;
Iñoz edo bein pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
biyotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

Neskatxa gazte paregabia
apirilleko arrosa
izarra bezin dizdizariya
txoriya bezin airosa;
oraintxen baño gusto geiago
nik eziñ nezake goza;
zorionian ikusten zaitut,
nere biyotzak au poza!

Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitudala nayago
ai, mariñelak gau illunian
izarra baño geyago?
Nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago;
zu ikustiak alegratu nau
triste neguen lenago.

34) JUANA BIXENTA OLABE

J. Bixenta:

Nagusi jauna, auxen da lana,
amak bidaltzen nau berorregana.

N. jauna:

Ai, bialduko bazinduzke maiz!
Zu ikusita kontsolatzen naiz.
Xinistu zazu,
oso zoraturikan naukazu
orren polita nola zera zu?

J. Bixenta:

Amak esan dit, etxeko_errenta
pagatzeko dirurik ez zuen-ta
ia egingo diyon mesere
illabetian geienez ere,
itxoitia;
bada zierto dala ematia
pasa baño len illabetia.

N. jauna:

Logratutzia, errex alare,
naiz ori ta beste zernai gauza re,
seguru dala esan amari
zu baldiñ bazatoz mandatari
dudarik gabe,
nere borondatiaren jabe
zu zera, Juana Bixenta_Olabe

35) LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

Gazte bat lurrean aurkitu dugu
 lore gorrix betarik kolkoa
 burdinen artetik ihesi dator
 euskal gaztediaren oihua!
 Mutilak eskuak elkar gurutzatzen,
 ekin ta bultzatzen denok batera!
 Bidean anaia erortzen bazaiz
 lepoan hartu ta segi aurrera.

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik
 nor geran, zer geran aitortzeko
 Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak,
 kataiaz loturik ibiltzeko.
 Gizonak bagera jo zagun aurrera
 gure herriaren jabe_egin arte
 Askatasunaren hegala azpian
 kabia egiten ohituak gare!
 Ibiltzen aspaldi_ikasia dugu
 otsoak eskutik hartu gabe.

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute
 izutuko gaituztelakoan,
 zutitu ta_euskeraz mintzatuko naiz
 nere hiltzailearen aurrean!
 Mutilak, ez gero negarrik egin
 erortzen banaiz gau ilunean
 Izar berri bat piztutzeroa noa
 Euskal Herriko zero gainean.

36) MADALEN BUZTURINGO

Madalen Buzturingo
gauen-gauean
errondean dabilta
zure portalean
Ai, Madalen, Madalen
ai, Madalen!
Zure bila nenbilen
orain baino lehen.

Hasi goiko kaletik
eta behekoraino
ez da ederragorik
Madalentxo baino
Ai, Madalen, Madalen
Madalen gaixoa!
Madalenek edaten du
edari goxoá.

37) MARKESAREN ALABA

Markes baten alaba
 interesatua
 mariñeruarekin
 enamoratua
 deskubritu gaberik
 bere sekretua
 amoriyua zeukan
 barrena sartua.

Konformatu ziraden
 alkarren artian
 ezkonduko zirala
 urrengo urtian
 eskola ikasteko
 biyen bitartian
 beraren erritikan
 guztiz apartian

Ala disponiturik
 jarri ziran biyak
 kartaz entenditzeko
 alkarren berriyak
 formalidadiakin
 jartzeko egiyak
 baña_etziran lo egon
 amaren begiyak.

Amaren maleziya
 korreora joan da

Antonio il zala
egiñ zuan karta
Juanitaren tristura
maitia esan ta
engañatu du bestek
gezur bat esanda.

38) MENDIAN GORA

Mendian gora haritza,
ahuntzak haitzean dabilta,
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
Mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura,
soineko beltzen jostura,
txori nigartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
Izarren salda argia_edanda
bizi naiz gustora.

39) MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak,
baso eta zelaiak
mendi tontor gainera
igo behar degu
ez nekeak, ez da bide txarra
gora, gora, neska-mutilak!
Gu euskaldunak gera
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean
euskaldunon artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta
hain ederra, hain polita da ta
gora, gora, Euskal Herria!
Gu euskaldunak gera
Euskal Herrikoak.

40) NAFARROA, ARRAGOA

Nafarroa, arragoa
argiaren pausaleku
haizearen ibil-toki zabal,
hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa
sua eta ura,
kondaira urratu baten
oihartzun oihukatua
Amets bat baino gehiago,
ez oparotasun osoa;
nahiaren eta ezinaren burrukatoki
ekaitzez betea (berriz).

Nafarroa, arragoa
mahats eta gari
maitasun eta gorroto
gezur eta egia gurea
Nafarroa, arragoa,
lur beroen sabel emankorra
eta goiko mendi hotzen
mendetako loa (berriz).

Nafarroa, Nafarroa
zuhur eta eroa,
lurrik maitatuena
hormarik gabe utzitako etxea;
erreka gardenen negarrez
ibai lodietara

ixurtzen ari den
odol bustikorraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa
izen bat eta oinarri
eta oinaze
eta bidean zure bila ibiltzea...
Pinudiek usaitzen dituzten
harri txingorrezko bidetan gora
O, Nafarroa, Nafarroa,
betikoa (berriz).

Amets bat baino gehiago...

41) NERE KOADRILAN

Nere koadrilan, nere koadrilan
nere koadrilan mozkorra franko
eta gainera soltero

eta gainera, eta gainera
eta gainera ezkontzerikan
ez dutenak espero
ez orain eta ez gero.

Hau dek zoritxarreko,
ezkondu beharra
ezkondu baino lehenago
biziko naiz neska/mutil zaharra.

42) OI, AMA ESKUAL HERRI

Anaia etxen da ezküntü,
bükatü niz oain joaitera
ene opilaren egitera
Pariserat banüzü.

Oi, ama Eskual Herri goxua,
zutandik urrun triste banüa,
adios gaxo etxen dena
adios Xiberua.

Pariseko bizitzia
lan kostüzüriaz bagiazü
bena berantzen zütadazü
zure berriz ikustia.

43) PELLO JOXEPE

Pello Joxepe tabernan dala
aurra jayo da Larraulen (berriz)
Etxera joan da esan omen du:

- Ez da neria izanen;
beraren amak topa dezala
aur orrek aita zein duben.

- Au pena eta pesadunbria!
senarrak aurra ukatu! (berriz)
Pello Joxepe, biyotz neria
aur orrek aita zu zaitu
aur orrentzako beste jaberik
ezin nezake topatu

44) TRISTE BIZI NAIZ ETA

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe
badaukat bihotzian
hainbat atsekabe.
Maite bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekulan izateko
esperantzik gabe.

Bihotz baten lekuan
mila banituzke
Zuretzako maitia
izango lirake
Baina mila lekuan
bat besterik ez det
hartzazu ba maitia
bat hau mila bider.

Nere maite polita
nola zeran bizi
zazpi egun hauetan
etzaitut ikusi
Uste det zabiltzala
nigandik ihesi
ez didazu ematen
atsekabe gutxi.

45) URTXINTXA

Urtxintxak oihanian jauzika
Aldaxkatik aldaxkarat
“Zuk erradazu ama, zendako
ez diren erortzen lurrerat?”

Nik ere nahi nuke
izan urtxintxa bezala
hain gora, hain trebe
izaiteko libre

Urtxintxak oihanian zintzilik
buruz behera buztanetik
“Zuk erradazu ama, zendako
ez duten buruko minik?”

Nik ere...

46) UME EDER BAT

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiyako kalean,
itz erditxo bat ari esan gabe
nola pasatu parean?
Gorputza zuen liraña eta
oñak zebiltzan aidean
Politagorik ez det ikusi
nere begiyen aurrean.

Aingeru zuri pare gabea
Euskal Erriko alaba
usterik gabe zugana beti
nere biyotzak narاما
ikusi nayan beti or nabil
nere maitea, au lana!
zoraturikan emen naukazu
beti pentsatzen zugana.

47) XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen, orotan bihotz bera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari, bakardadez josia
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia... ikasia.

Non hago, zein larretan
Urepeleko artzaia?
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana?

Hesia urraturik, libratu huen kanta
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.
Azken hatsa huela, bertsozik sakonena
inoiz esan ezin ziren
estalitako egien
oihurik bortitzena... bortitzena

Non hago?...

48) ZEZENAK DIRA

Dira, dira, zezenak dira,
beltz-beltzak dira
adarra motza, punta zorrotza
harrapatzen bazaitu! (berriz)
Jo ta bertan hilko zaitu (berriz).

Zezena dator arkupetik
sua dario adarretik
txinparta gora, txinparta behera
Osio bidetik.

49) ZAZPI EUSKAL HERRIAK

Zazpi Euskal Herriak
bat egin dezagun
guziok beti beti
gauden gu euskaldun.

Agur eta ohore
Euskal Herriari
Lapurdi Baxenabar
Ziberu gainari.
Bizkai, Nappar, Gipuzko
eta Arabari
Zazpiak bat besarka
lot gaitez elgarri.

Haritz eder bat bada
gure mendietan
zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan
Frantzian, Espainian
bi alderdietan
hemen hiru eta han lau
bat da zazpiretan.

50) ZIBILAK ESAN NAUTE

Zibilak esan naute
bizirow egoki
Tolosan bihar dala
gauza erabaki;
giltzapian sartu naute
poliki, poliki
negar egingo luke
nere amak baleki.